

Txapelketaren gertaera errituala: euskal kulturaren sinbolo giltzarria

Jexux Larrañaga Arriola
Antropologian doktorea, UPV/EHU

Aurkeztera goazen ikergaian, *txapelketaren paradoxa* sakondu nahi izan dugu. Gertaera horrek gizarteratzen duen joko-eskemaren lehia benetako izanik ere, duen «esangura kulturala», jolasaren eremu sinbolikoan asebetetzen duela defendatuko dugu, hots: egiletza kolektibo eta izaera kulturalaren ardatzean. Gertaera errituala *jolas sakonaren* eremu ekoizlean esanguratu ahal izango dugu. Jolas kulturalak, komunitateak bizitzaz eta munduaz duen ikuskera bat erakusten digun neurrian, txapelketaren eremu sinbolikoa interpretazio kulturalaren lurra bihurtzen du. Txapelketaren gertaera errituala euskal kulturaren *sinbolo giltzarria* da.

GAKO-HITZAK: Jolas sakona · Semiosfera · Kultura-testua · Sinbolo giltzarria · Txapelketa.

Verse Improvisation as Symbol and Ritual Process in Basque Culture

In this investigation we want to examine the paradox of bertsolari championship. We claim that, even if in social terms the event itself of the championship corresponds to the competitive scheme of «joko», its cultural meaning takes place in the domain of non-competitive playful «jolas»-along the axes of collective authorship and communal culture. Even if at the surface it is «joko» we situate the championship in the realm of deep play. To the extent that play in culture is expressive of a community's interpretation of life and the world, the symbolic dimension of the championship becomes fodder for cultural interpretation. The ritualized performance of the championship becomes ultimately a key symbol of Basque culture.

KEY WORDS: Deep play · Semiotics · Cultural text · Key symbol · Championship.

Jasotze-data: 2013-09-04. *Onartze-data:* 2013-11-21.

1. Sarrera

Lan honen helburua txapelketaren azalpen antropologiko bat ematean datza. Hasteko, Joseba Zulaikak (1985) argitaratutako *Bertsolariaren jokoa eta jolasa* paradoxa zaharra bezain emankorra gogoan izan dugu. Baina zer da jokoa eta zer da jolasa txapelketari dagokionez? Kokatu ote liteke txapelketaren lehia kulturaren esparru malguago edo zabalago batean? Txapelketaren dohaina barne biltzen duen paradoxa da: benetako jokoa izanik ere, bestea gainditzea ez da benetan garrantzitsuena jolas honetan. Txapeldunaren kategoria estetikoak jolas honen ondorio bihurtzen da orduan.

Jokoaren eta jolasaren arteko paradoxa sakontzeko, eremu soziokultural batek ardatzen duen espazio kulturala *semiosferaren*¹ (Lotman, 1996) geruza ingurutzailan kokatu dugu: bertan dago kultura-ekosistema oso bat. Kulturaren espazio adierazgarri hori arkeologia erritual eta liturgikoa duen espazio estetikoan ulertu dugu. Bertan, aldiro ekoizten da *kultura-testua*². Kultura-testuaren ardatz diakronikoan, gizarte-tradizioaren balio trinkoaren mundu-ikuskerak aurkitu ahal izango dugu, eta, ardatz sinkronikoan, zoladura estetikoaren berritasunetik txapelketak gaur eta hemen betetzen duen *funtzio kulturala*. Katebegiaren bi muturren artean mundu erreferentzialaren bilakaera eta aldaketa dago, denbora erritualak seinatzen duen komunitate presentzialaren gertaerazko «egia»³. Komunitatearen bitartekaritzak zera erakusten du, bere hitza ekoizteko erabakimena duen giza taldeak duen harreman-izaera lur batekiko loturan hezurramitzen duela.

Espazio liturgikoaren arkeologia erritualak *subjektu estetikoak*⁴ birsortzen du kulturara, euskal sinbologia liminalaren une ikonikoaren gorentasun erritualean. Subjektu estetikoak «izan» eta «izan liteke» bi talaien arteko sorkuntza kulturalaren espazio transizionalean ekoizten du bere egiaren arrazoia (autoekoizpena). Hor kokatu dugu bertsolariaren prozedura predikatiboaren gako sortzailea: *arrazoi sortzaileak* gidatzen du bere hitzaren sorkuntza-norabidea. Bertsolariaren biografiaz metatu izan duen balioan, herria hitzetan sortzeko *hitzezko akziodun*

1. *Semiosferak* espazioa eta denbora mugatzeko balio digu, bereizmen-esparru bat sortzeko. Hala ulertzen dugu, giza garunak ekoizten duen sistema errepresentazionala, orobat, sistema sinbolikoa da. Esan dezagun ikergai honi dagokionez, komunikazio-truke bat elikatzen duen espazio errepresentazionala dela semiosfera, eta bere baitan, *semiosia* harremana gertatzen dela.

2. *Kultura-testua* kontzeptua, estetika batekin oso lotuta aurkitzen dugu. Duen sortzaile-izaera aldiro testu berria sortzeko ahaltsunetik datorkio. Sortzaile-izaeratik eratorri dugu duen ahaltsun eraldatzailea.

3. Kontzeptualki, «egia» mota desberdinetan sailkatu dugu. Komunitate presentzialaren «datu kulturala», komunikazio erritualak barnebiltzen duen «egia»ren arabera dela ulertu dugu. Hala, «egia narratiboa» (epifanikoa), «egia diskurtsiboa» (argudiozkoa), «egia kontestuala» (semiotikoa), guztiak barne biltzen dituen kultur prozesu komunikatiboan uztartzen ditugu. Inferentzia bidez ekoizten den «egia» mota, *autosorkuntzaren egiaren* eremuan kokatu beharko dugu (Peirce, 1988).

4. Kategoria estetiko hori erabili dugu erritual performatiboaren azken emaitzak izendatzen duen txapeldun berriaren izaera estetikoak definitzeko. Subjektu estetikoak, izaera kulturalaren ardatzean «egia» mota bat baitarutzen duen figura gisa aurkeztu dugu. Subjektu estetikoaren balio-oinarrian bertsolariaren biografia aurkitu dugu. Biografia horren balioari, bere buruarekiko harremana eraikitzeke jarrera sortzailean eusten zaio: herria hitzetan sortzeko ekintza. Hortaz, ahalmentze komunitarioaren norabidean kokatu dugu. Erritualak erakusten digu subjektu estetikoaren kategoria osotasun zabalago batean disolbatzen dela kontsakrazioa egin eta gero, hortaz subjektu estetikoak funtsean subjektu kolektiboa da.

era aurkitu dugu. Hitzezko akziodun erak erakusten digu unibertso poetiko narra-tiboa sortu, jariatu, egonkortu eta eraldatzeko ahalatasuna duela. Haatik, kultura sortzeko gaitasuna duen hitzezko akziodun era da. Ekoizpen-norabidea, *norgintzaren* eremu ekoizlean kokaturik dagoela baieztatu ahal izango dugu, hots, komunitatearen ekoizpena du amets.

Zoladura estetikoaren *eraberrikuntza-paradigmak* «Gu» eraberrituaren balio berrira begira jartzen gaitu. Gizarte garaikideak elikatzen duen subjektu bakar-zale, lehiakor eta sobera arrazionalari kontrapuntua eginez, subjektu errotuaren, (komunitarioa, sortzailea eta erlazionala) giza balio aberatsa kontrajartzen zaio. «Jendarte metaforizatzaile»-ra (Maillard,1992) begira dagoen giza legamia aberatsa aurkitu dugu hor. Bertsolariaren biografiaren balioa herria hitzetan sortzeko ahaltasun metaforikoari loturik aurkitu baldin badugu, Agorak erakusten digu subjektu berriranzko trantsizioa elkarbizitzaren balio malguagoan erein beharrekoa duela. Komunitate berdinkidea pentsatzeko garaian sarturik gaudela iragartzen ari zaigu XXI. mendeko Agora. Espazio estetikoaren bizigarritasunak sakontzeko garaia bizi du egun: muineko nor kolektiboari aurrez aurre begiratzeko garaia. Ikergaiaren ondarrean, txapelketak erakusten duen kultur balioaren jabegoa *jolas sakonaren*⁵ unibertso sinbolikoan esanguraz hornitu edo esanguratu dugu. Hortaz, baieztatu ahal izan dugu txapelketaren gertaera errituala *sinbolo giltzarria*⁶ dela euskal kulturaren unibertsoan.

2. Tradizioaren eraikuntza

Eric Hobsbawm eta Terence Ranger-ek tradiziori lotuta dagoen biziberritze etengabearen ikuspuntua *Tradizioaren eraikuntza* (1983) idazlanean agertzen dute. Argi uzten dute tradizioaren izaera dinamikoa eta prozesuala memoriarekin duen lokarri-funtzioan eraikitzen dela. Beraz, txapelketaren komunikazio erritualak erakusten digu denboran iraun eta errepikatzeko izandako joeran, *memoria sortzailea* izan duela. Argi dago honezkero, egungo tradizioaren oinarria ez dela egon hutsean eraikia, lehendik datozen balio-oinarrien gainean eraikitako prozesu kulturalaren emaitza izan dela baizik. Prozesu horretan, kultur eraikuntzaren baldintzak gogoan izan ditugu: lehenik, lurralde batean edo testuinguru batean eraikitzen da; bigarrenik, aurretiko sustrai kulturalaren gainean eraikitzen da; hirugarrenik, zehaztu egin behar da zerbait eraikitzekotan; eta laugarrenik, eraikitze-prozesua ulertze-prozesuarekin batera doa. Objektu kulturalaren adiera batean, antzinatik datozen osagai kulturelek izan duten eragina aintzat hartzen dugu, baina bestean, objektuaren egungo bizitza sozialean eraginezkoak diren osagai gaurkotuenek objektua eraldatzen dute, alegia, biziberritu eta eguneratu.

5. *Jolas sakonaren* kontzeptua estreinako, Jeremy Bentham-ek erabili zuen, *The Tehory of Legistation* idazlanean. Jolas horretan hainbeste arriskatzen da, ezen jolastea merezi ote duen zalantzan jartzen baitu; izan ere, «zerbait dago jokoan». «Zerbait» hori ez da joko-eskemaren emaitza literala, txapelketak betetzen duen *funtzio kulturala* baizik. Txapelketak jokoan jartzen duena komunitatearen elkarbizitzaren ideala da.

6. Turner-ek erabili zuen kontzeptua. Scheider-ek «sinbolo nagusia» erabili zuen eta Pepper-ek «metafora-erroa». Antolaketa kulturalaren erro bat erakusten du nolana, zerbait oso oinarritzkoa garraiatzeko ahalmena. Turner-ek, sinbolo giltzarri hauei, bi esanahi emango dizkie: batetik, ordena bat eta ikuskera bat adierazi eta garraiatzeko ahalmena; bestetik, sentiera bat pitzarazteko eta bizibe-rritzeko gaitasuna.

Hortaz, ulertu behar dugu ahozko komunikazio-prozesu kulturala eguneratutako «kapital sinbolikoa» dela. Jasotako tradizioari «zentzu» bat eman eta birsortu, kultura bidearen izaera dinamikoa berresten duen kultura kapitala da. Txapelketaren katebegia, iragana, oraina eta etorkizuna komunikatzen dituen komunikazio erritualak bermatzen du. Komunikazio erritualak tradizio bat aurrera begira jartzeko ahaltsuna duela erakusten digu. Hori da gertaera erritualaren funtzioa: iraganeko materialak helburu berrietarako erabiltzeko gaitasun sortzailea izatea. Hortaz, gertaera errituala, jabego esanguratsua da kolektibo baten eremu errepresentazionalen⁷, haatik, zilegitasunez erabili ahal izango da narratiba antropologikoaren berrelikadura sinbolikoa.

3. Iraganeko txapelketaren mundu-ikuskera

Gerraurreko txapelketaren oihartzunak Euskara eta Aberriaren aldeko gorazareta zekarren. Alde batetik, eliza katolikoak urteetan bultzatutako *ethos kristauaren* mundu-ikuskera bati ainguratuta aurkitu dugu bertsolariaren ahotsa, gizarte tradiziozalean errotutako balioei atxikia. Bestetik, Euskal Pizkundearen gorakadak zekarren euskal gogoaren aldeko giroan, Aberriaren eta Euskararen gorazarrea, base-ritar bizimoduaren epikarekin osatu egiten da, luze bizi izandako *mundu-ikuskera* baten oihartzunean. Mundu-ikuskera baten zaintza, hura *sakralizatzeko* joeran dago. Iraganeko txapelketek biltzen duten erregistro kulturala —giltz kontzeptualak, irudi sinbolikoak, arketipo kulturalak— mundu bat «izendatzen» lagungarria zaigu.

Euskara eta Aberri-mina kulturaren min esentzial bihurtzen dira txapelketaren lehen aro horretan, hil edo biziko egoeran dagoen hizkuntzaren bizi-mina dago oinarrian. Amaren irudikari sakralizatuak sentiera baten afektu-fluxua jariatzeko balio lezake: *Ama-lurra*, *Ama-aberria*, *Ama-hizkuntza*. Amaren metaforizazio kulturalak afektu-fluxuen transferentzia bermatzen du, arketipia kristau eta aberrikoien baitan ulertzen den *mundu-ikuskera* baten neurria erakutsiz. Euskarari eta Aberriari darizkien kultur minek euskaldungoaren biziera agoniakoa erakusten dute, nortasun-nahi bat pitzaraziko duen kultur mina edo *gabezia kulturala*. Nortasun-beharrizana aurkitu dugu txapelketaren jatorriko matrize-erroan. Nortasun-nahi hori euskal kontzientziaren askatasun subjektiboaren berreskurapenari loturik aurkitu dugu, *subjektibotasun-era* berreskuratzeko premia gorria. Txapelketaren hasieratik aurkitu dugun euskaldungo baten bizimina euskaldun izan ezinaren mindura agoniakoa atxiki diogu, *gabezia kulturala* edo *jatorri-min esentziala*, objektu semiotikoak (iraganeko txapelketak) zuen jatorrizko alderdi transzendentea izan da.

Laburki, honela azaldu dugu *iraganeko txapelketaren* kultur dentsitatearen balio-multzoa:

1. Txapelketa *nortasun-nahi* bati lotuta sortzen da. Nahi horren erroan jatorri-min esentziala aurkitu dugu, euskaldungoaren biziera agoniakoa. Txapelketak «topos komunitario» bat irudikatzen du, oihartzun sozial apaleko bilgune sinbolikoa da.

7. Kultura, gauzetatik ideietara igaro den garaiotan, eremu sinbolikoa garatzen den langintza da. Hots: talde bat, bere-bereko errepresentazio-mundua ekoizten duen neurrian baino ez da osatzen talde gisa (Larrinaga, 2012).

2. *Usadioak, baserriak, fedeak eta euskarak* gizarte-tradizioaren balio trinkoa erakusten dute, semiosferaren balio nuklearrak dira.
3. *Fedeak* garrantzi handia izango du. Sinestuna izatea «euskaldun on»aren balioetan goresten da. Ordena erlijiosoa baserri-giroko gizarte tradizionalaren ordena zentrala da.
4. *Bertakoaren eta kanpokoaren* arteko kontzientzia berezizaile argia dago, kanpoko mehatxu gisa bizi denez, dikotomia indartsua da.
5. Eremu publikoa gizonarena denez, txapelketak ordezkatzeko duen unibertso-lurralde orobat, *tradiziozko mundu hegemoniko maskulinoak* islatzen duen mundu-ikuskera baten neurritik ulertzen da.
6. *Arketipia femeninoa* emakume sakralizatuak ordeztzen du. Emakume ahalguztiduna da, emakume mitikoa. Ama edo Birjina, bi sinbolo totemikoen artean irudikatua denean emakumearen ahalguztiduntasuna euskal kulturaren izandako irudikapen zentral horretan islatzen da.
7. Teoria matriarkalaren baitan ulertzen da mundu-ikuskera baten sakralizazioa: *Ama Jainkosa, Ama Aberria eta Ama Euskara*. Arketipo gisara elikatu diren kontzeptualizazio kulturalak dira.
8. *Pentsamendu-dikotomia* indar handia duten kontrasteetan ikusten da: bertakoa/kanpoko; euskalduna/kanpotarra; jainkotiarra/mundutarra; baserria/kalea; hiria/mendia; talka egiten duten bi munduren agerkeria ematen dute.

4. Sinbolismo kulturala

Txapelketaren prozesu errituala predikamendu-gertaera da (Ricoeur, 2001) eta ezaugarri hauek betetzen dituela aurkitu dugu. Bat: *predikazioa*, une jakin eta iragankorrean gertatzen da, garaian garaikoari lotzen zaio. Bi: predikazioaren *subjektua* izenordainetan lekutzen da, haatik, autorreferentziala da. Hiru: predikazioa, betiere, zerbait buruzkoa da, *mundua* du hizpide. Deskribatu, adierazi, irudikatu gura duen munduari funtzioa eta proiektzio sinbolikoa ematen dio. Lau: predikazio horrek *taldetasuna* eraikitzen eta baieztatzen du, taldea solidotzen eragintzen ditu.

Horrelako ezaugarriak dituen *predikazio-gertaera*, une iragankorrean, komunikazio erritualak bermatzen du. Predikazio-gertaerak eta ekintza erritualak gertaera «berridatzi»⁸ egiten dute kolektiboaren oroimenean. Prozesu erritualaren baitan kokatzen den gertaeratzat jo dugunez gero, honako ezaugarri hauek betetzen dituela aurkitu dugu:

Lehenik, gertaerak *oroimena ainguratzeko* ahaltasuna duela erakusten du. Gertaerak proposizio-egitura erakusten du eta predikamendua da hauen gaia edo «goiburu kulturala». Zentzu-jarioak memoria kolektiboan ainguratzen du gertaera, *memoria sortzailearen* etengabeko «berridazketa-lana» da.

8. Memoria kolektiboan gordetako elikatuz egiten du bere berridazketa-funtzioa: irudikatuz eta izendatuz. Behin eta berriz egiten den berridazketaren prozesua da. Komunitatearentzat zentzu bat izandakoa geroratuko du.

Bigarrenik, giza ekintzaren *dimentsio soziala* aipatzera gatoz. Komunikazio-baliagarritasuna, duen forma erritualaren komunikazio-prozesuarekin batera gauzatzen du. «Zentzugintzak» —zentzu-ekoizpenak— «unibertso sinbolikoa» eguneratu eta biziberritzen du.

Hirugarrenik, *gertaeraren egokitasuna* eta *garrantzia* aipatu nahi genituzke. Komunitate presentzialak ibilbide baten sinesgarritasuna erakusten duen praxia kulturalak bermatzen du. Gertaerak ekoizpen-testuingurua gainditu egiten du eta predikamendu-gertaera berriak birsortzeko baldintza kontestualak sortzen ditu.

Laugarrenik, *norabide batean* jarritako kate-mailen bildumak osatzen du prozesu errituala. Norabideak bermatzen du komunikazio errituala. Hitz berriz, hitzen arteko harreman berriz, erreferentzia berriz, berrantolatzen den komunikazio kulturala da. Funtsean, komunikazio erritualaren predikazio-gertaerak erakusten diguna zera da, formaren eraberrikuntzak mamiaren jarraipena izan duela helburu.

5. Arrazoi sortzailea

Gaur, bertsolariaren ahots-irekidura hitzetik munduranzkoa dela ohartu gara, harreman-lur bati lotzen zaion ahotsa nolana. Bertsolariaren *arrazoi sortzailea* errealtate estetikoa birsortzen elikatu izan da. Haren ahots estetizatuaren ezaugarritasun berezkoena ahalezko mundu posibleak birsortzeko eta bizi izateko gaitasuna izatean zetzan, mundua berridazteko zeregin amaigabearen arrazoi inferentziala josi, *ad infinitum* (Peirce, 1988)

Arrazoi sortzailearen jomuga gertaera baldin bada, bertsolaria ez da azaleratze horretan gertatzen dena baino, bertsolariaren «ahozko jolas»aren irudi zaharbertua zoladura estetikoaren azal berrian. Bere *izaera performatiboa*, sortu eta azaldu, biak batera egiten ditu, *ethos idiosinkrasia* sakonagoaren agerkeran, estetika (egon eta izan erro metaforikoa) baten kokapenezko jarrerak *ikonizatu* egiten du. Irudi ikonikoa da berea. Bertsolariaren kokapen ikonikoa, bere baitan eta izaten, begirada subjektibizatzen duen lurtean uztartzen da: ahots bat, gorputz bat, doinu bat, agerkeraren estetizazioa. Sortzen ari denean, isiltasunaren bizipen-espereientzia gertatzen da kolektiboan, sormen-ekintza komunitarioa da. Isiltasunetik sortzen da hitza eta isiltasun sortzailearen denbora komunitarioa kontzientziaren denbora da: «egon» eta «izan», biak elkarrekin jartzetik elikatzen da kontzientziaren denbora. Kontzientziaren denbora, emoziotik (*phatos*) eta arrazoi-tik (*logos*) elikatzen da, sentiera banaezinean. Bana litekeen errealtaterik ez dagoela aldika erakusten digu giza gogoak, bertatik ulertzen da bizitzari lotzen zaiola bertsolariaren hitza. Isiltasunak sortzen du hitza eta isiltasunaren trantze sortzailean pizten da giza gogo. Bertsolariaren irrika sortzaileak ez du errealtatetik aparte dagoen jolasik sortzen. Hitzaren jolasa, bizitzaren alde egindako azertuan zetzan. Hitz hori, sortzailea denean denbora komunitarioaren urradura berri ba-koitza tolestutzen ari da. Jatorri bila birsortzen den hitz sorkaria da harena.

Bertsolariaren arrazoi metaforizatua baldin bada estetika sortzailearen jomuga, haren *biografiaren* etika egindako bidean zetzan. Haren biografia narratiboa konstante etiko batek gidatu izan du: herria hitzetan sortzeko ekintzak. Ahotsak eta gorputzak bat egiten dutenean, subjektu estetikoaren proiektzio osoa gertatzen

da kulturara, erritual komunitarioak iratzarri duen *subjektu estetikoaren* kategoria errituala da. Subjektu estetikoak izaera kulturalaren ardatzean «egia» mota bat baitaraten du, hura da bere sorkuntzaren arrazoia.

Subjektu estetikoak *izan erro metaforikoaren* erregistro kulturalan barnertzen du bere izaera herrikoien estetizazioa. Hala nola unibertso bateko datu diskurtsiboak aipatuz ekar genitzake «izan» erro metaforikoaren ardatzean biltzen direla erakusteko. «Gu»aren gaineko bertsolariaren predikazio metaforikoan, Charles S. Peirce-k (1988) erabili zuen sailkapenari jarraiki, aipu diskurtsiboaren hiru ardatz bildu ditugu:

Bat, *existentziaren ardatza*: izan badenaren egiaztapena eta berezko balioa (*alaba, hementxe herri bat dago/ ikusi nahi dunik bada*) erakusten du. Bi, *jakinduriaren bidea*: herri-izaeraren jakinduria, jakintza instrumentalaren biziera-balioa da (*izango dugu ahalmena, ta beharrezko den dena/ beste noranahi eramateko, hemen batu gaituena*). Hiru, *posibletasunaren ardatza*: izateko aukera eta erabakimena subjektu estetikoaren ardatzean dago (*herri hau sortzen jarrai dezagun/ euskaratik eta euskaraz*).

Fluxu horren jarioan kokatu dugu bertsolariaren arrazoi sortzailearen *logika inferentziala*, mundu-ikuskerara birsortuz, erresuma metaforikoa amaigabe gara lezake. Arrazoi sortzailea *autosorkuntzaren* «egia»ren paradigma bihurtzen da, ekoizpen kulturalaren norabidea.

6. Identitate bizigarria

Bauman-ek dioskunez (2010), Agora «egia»ren muin bat azalera zekarren lekuzko gertakaria bihurtzen da maiz. Agoraren adierazle-tasunak bizipen komunitarioaren dentsitate-gune bat dakar azalera. Peirce-k (2005) proposatu zuen «egia» semiotikoaren eredian, *autosorkuntzaren* eredia «egia metaforiko»tzat definitu dugu, bi printzipioei jarraiki: lehenik gertatu egiten da, (*event*) eta gertaera gizartean sortzen diren harreman-prozesuen baitan sortzen da; bigarrenik, gertaera eraiki egiten da ibilbide narratiboaren burutzapenean, kodigo eta erregistro kulturalaren baitan ulertzen dugu. Paul Ricoeur-ek (2001) esaten diguna zera da, subjektuari testuaren aurrean bere burua ulertzeko eskatzen zaionean, testuak deskribatzen eta berregiten duen munduari zabalik dagoelako gertatzen dela hori; identitate narratiboak behar duen irekiera-ardatza da.

Egungo identitatearen kontzeptualizazioan giza izaeraren pertenezia-moldea ez da behin betiko kategoria irmoa. Are gutxiago esentzia bat. Ezin esan identitatea eta izaera ulertzeko moduan euskalduntasuna norberaren baitan lo edo hiltorian zetzan izaki edo izaera esentziala zenik, gaur dakigunez, izaera kolektiboa, *izatean* datzanez. Bauman-ek dioskunez, *zeregina* da. Jakina da, beraz, euskal identitatea ez dela iritsi beharreko jomuga edo leku finkoa izango, identitatea, ekoitzi beharreko *zeregina* da egun, narratiba antropologikoaren ekoizpen prozesual amaigabea. Norgintza kulturalaren ekoizpen-norabidean, norbere erroa sakontzetik hel liteke, bildu eta atzerantz egin gero berriz aurrera begira jartzeko bidean metatutako balioa. Hor aurkitu dugu Agorak barne biltzen duen *identitate-teoria erlazionalaren* iparrorratza.

Joko-eremu propioaren ahalduztetik baino ezin liteke bermatu norgintza kolektiboa. Neurri handi batean, objektuaren autokontzientzia erreferentzialaren subjektu estetikoa erabakimen askea. Gaur, subjektu-ekoizpenaren logikak Agoraren erdigunean jarri ditu emakumearen presentzia, balioa eta hitza.

Agoraren matrize sinbolikoan agertzen zaigun *subjektu estetiko*a subjektu errotoa da, subjektu erlazionala, komunitarioa. Subjektibotasun hori ez da izan isolatutako atomo soziala bere aldarrian, izaera mekanizista izan duen gizabanako modua. Subjektibotasun hori, antolaketa prozesualaren agerkeria komunitarioaren ondorioan berridazten da, «zentzu-lur» (harremana, lurra eta kontzientzia) bat ekoitziz egindako bidearen emaitza da. Subjektibotasun hori taldeatasunean ekoiztua izen den neurrian, sistema ireki batean elikatu den subjektu mota azaleratzen du, hitzetik munduranzko norabidean bultza egiten du. *Subjektu errotoa* aro garai-kideak elikatu duen gizabanako atomizatu eta isolatuaren aurkako metafora bihurtzen zaigu.

Agoraren *sistema sinbolikoak* ez du bakarrik estilo kulturalaren harreman-izaera baieztatzen, baizik eta harreman-izaera hori ekoizti eta berresten laguntzen duen sistema kulturala eratzen laguntzen du. Agoraren ahaltasun eraldatzailea duen estetika-balioan datza: posibletasunaren mugetan amesten duen unibertso-lurralde metaforizatze gaitasuna da. Ildo horretan, sistema osoaren eraberrikuntza mundu berriranzko harreman-logikaren koordenatuak erakusten ari zaigu, kultur subjektibotasunaren balio komunitarioa ez dela hutsala, bertan datzala barne biltzen duen altxor-balioa. Alajaina, bitartekaritza komunitarioaren presentziak erakusten du komunitateak bermatzen duela Agora, haatik bertotik ekoizti dugu haren balio kulturalaren frogia.

7. Ondorioak

Ikerketa honek eraman duen lan-ildoaren arabera, txapelketaren gertaera *jolas sakonaren* eremu sinbolikoan esanguratu dugu. Jolas sakonak, hainbeste arriskatzten duenez, jolastea merezi ote duen zalantzan jartzen du. Txapelketa, lehia hutsera murriztuz gero, zentzurik gabea gerta liteke, masa-kulturaren balioetara lerraturik gelditzen den ikuskizun hutsala bihurturik: hitzezko suziri zentzugabea. Merezi ote duen galdera maiz sortzen du, batez ere lehiaren ondorioa gehien sufritzen duen bertsolariarengan. Ikerketa-lan honek txapelketaren eremu sinbolikoa, lehia zurrunetik harago, izaera kulturalaren ardatzean uztarturik aurkeztu du, egiletza kolektiboaren ardatzean eta helburu kolektiboan baita. Txapelketaren zentzu kolektiboak, duen *tresna-izaera*, funtzio kulturalaren baitan dagoela berretsi du. Haren zentzu-jatorria herri-izaeraren ardatzean katigaturik aurkitu dugu. Egun egin duen bilakaeran, zentzu *eraikitzailea* eta *pragmatikoa* nagusitu zaizkio. Finean, txapelketak kulturaren egiten duen ekarpen sinbolikoa nabarmentzen du ikerketa-lan honek, gertaera baten *ikur-balioa* lur bati loturik ekoizten duela frogatzeko.

Bestalde, kultur objektuaren berrelikadurak erakusten diguna da hizkuntza ez dela komunikazio-tresna hutsala. *Hizkuntzak*, semiosferaren balio artikulatzailea izanik, mundu-ikuskeraren oso bat zekarren barne-muinean itsatsia, giza antolakuntza

oso bat zentzurik zabalenean. Euskal kulturaren unibertso sinbolikoan, txapelketaren prozesu errituala, euskaratik sortzen den mundu-ikuskeraren baten oihartzunean ulertu dugu ikerlan osoan, kultura-ekoizpenaren beregaintasuna (subjektibotasun-era) aitortu diogu. Txapelketaren «egia» bat da gozamenerako hitzaren mundu oso bat eskaintzen duela izandakoaren oihartzunetik, gaur eta hemen, jendarte baten aitortza egiteko. Txapelketaren zentzu bat, izandakoaren errotik orainaren presen-tzia izan nahi duenari begira jartzeko eta mundu bat estetizatzeke duen ahaltasun sinbolikoa da.

Objektuaren ikur-izaerak erakutsi diguna zera da, *existentziaren ardatzean* iraganeko erroaren baliagarritasuna eta berezko izaeraren jabegoa barne bildu dituela. *Jakinduriaren ardatzean* hizkuntzak barne biltzen duela ordeztzen duen «mundutxoaren» balioaren muina («hizkuntzak egiten zaitu herri»). *Posibletasunaren ardatzean*, etorkizuna bere esku duen herriaren jabegoa, errealitate estetikoaren sorrera-gaitasunak ematen diola. Errealitate estetikoaren ezagumendutik, XXI. mendeko Agoraren ikonizazioak (zentzu-ikonizazioa) *sakontzeke* garaiak bizi duela erakusten digu. Errealitate estetikoaren sorrera-gaitasunak erakusten digu subjektu estetikoaren erabakimena printzipio unibertsalaren gidalerroan ekoitzi behar duela. Bere hitza ekoizteke erabakimena duen talde kulturalari atxikitzen dion ardura da. Gaur, subjektu estetikoaren balioa *subjektu eraberrituaren* erabakimen-gaitasunean dago. Agoraren ardura, mundu bat ekoizten, sortzen, izendatzen, geroratzen, subjektu mundu-lurraren ardura izan baldin bada, hizkuntzatik *izatean* zetzan haren ekoizpenaren ardura: *mundu propioaren* hasiera iragartzen duen mundua birsortu eta geroratzeko ardura. Izan ere, bere hitza ekoizteke erabakimena duen giza taldeak izan nahi duenari begira jartzen du sortzen duen irudi-errepresentazioaren lorratza.

Txapelketaren «egia» metaforikoa *metafora-erroak* jariatu duen sentimen transferentzialaren oharmen-balioan aurkitu dugu: egitismo komunitarioaren kontzientzial-balioa. Objektuaren kontzientzia mundu-ikuskeraren maila berriak urratzean zetzan aurreko kontzientzia galdu gabe, afektu-fluxu bat biziberritu eta gerortzean, zentzu-lur bat jariatzean. Metaforak kulturaren egindako lan isila txapelketaren gertaera erritualak azaleratzen du eta talde kulturalaren *metafora bizigarria* (Ricoeur, 1980) da. Haatik, objektuaren aurkikuntza estetikoa, bere baitan barne biltzen duen *zentzu-jarioan* asebetetzen duela ulertu dugu. Kontzientzia estetikoa ahalmentze kulturalaren esparru bizigarrian kokaturik aurkitu dugu, epe luzeko egitismo komunitarioan. Hitzaren norabideak komunitatearen ekoizpena du amets. Hortaz, txapelketaren onura ez da jokoaren emaitza literala bakar-bakarrik. Txapelketaren onura egiletza kolektiboak betetako *funtzio kulturalen* aurkitu dugu: talde kulturalaren elkarbizitzaren idealei so dagie. Azken buruan txapelketak jokoan jartzen duena talde-bizitza beraren berariazkotasuna edo berezkotasuna baita, kultura-subjektibotasunaren balio beregaina. Kulturatik aldagai subjektiboa ezabatuz gero, kultura globala eta homogoneoa baino ez zaigu geratzen, hortaz, txapelketaren ekintza erritualak benetan jokoan jartzen duena izaera kulturalaren ardatzean enbor eginda aurkeztu dugu. Hala nola txapelketa, euskal kulturaren sinbolo giltzarri bihurtzen den. Haren oharmen-eragina kulturgintzaren eremu ekoizlean kokatu dugu bete-betean. Txapelketaren eremu ekoizlea fikzioaren eta berridazketaren artean kokatu dugu, zentzugintzaren eremu errepresentazional eta ludikoan. Bertatik ulertzen da islatzen duen mundua.

Bibliografia

- Agis Villaverde, M. (1995): *Del símbolo a la metáfora. Introducción a la filosofía hermenéutica de Paul Ricoeur*, Santiago U., Santiago.
- Altuna, B. (2003): *Euskaldun fededun*, Alberdania, Irun.
- Amuriza, X. (1981): *Hitzaren kirol nazionala*, Hika Mika, Gizaburuaga.
- Ariztimuño, J.(1985): *Bertsolari guduak*, Foru Aldundia, Donostia.
- Arraiza, E. (2007): *Euskal Herria ardatz. Kultura, identitatea, boterea*, UEU, Bilbo
- Azkarraga, J. (2011): *Euskal harriak*, Alberdania, Zarautz.
- Azurmendi, J. (1980): "Bertsolaritzaren estudiorako", *Jakin*, **14/15**.
- Bauman, Z. (2002): *La cultura como praxis*, Paidós, Barcelona.
- , (2010): *Identidad*, Losada, Buenos Aires, Argentina.
- Bateson, G. (1989): *El temor de los angeles*, Gedisa, Barcelona.
- Bertsolari Txapelketa Nagusia, (2002): EHBE, Donostia.
- , (2005): EHBE, Lanku, Donostia.
- , (1962) Auspoa, 22, Tolosa.
- , (2006): EHBE, Lanku, Donostia.
- , (2010): EHBE, Lanku, Donostia.
- Bertsozale Elkarte, (2004): *Ahozko improbazioa munduan topaketak*, Donostia.
- Blumer, H. (1982): *El interaccionismo simbólico*, Hora, Barcelona.
- Casquete, J. (2003): "Rituales y acción colectiva", *Ankulegi*, Gizarte Antropologia aldizkaria, **7**, Donostia.
- Dufrene, M. (1982): *Fenomenología de la experiencia estética*, Soler, Valencia.
- Eco, U. (1988): *Signo*, Labor, Barcelona.
- Echeverría, J. (1980): *Sobre el juego*, Taurus, Madrid.
- Etxezarreta, J.(1993): *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*. Auspoa, Sendoa.
- Eizmendi, I. (1984): *Bertsolaritzari buruz*, Auspoa, Tolosa.
- , (1984): "Herriaren anima da bertsoa", *Argia*, **101**, Maiatza, 22-25.
- Gartzia, J. eta Sarasua, J. (1998): *Bertso ispiluan barrena*, Alberdania, Irun.
- Geertz, Clifford (1998): "Deskribapen trinkoa: kulturaren teoria interpretatibo bateruntz", *Ankulegi*, Antropologia aldizkaria, **2**, 93-116.
- Greimas, A. J.(1989): *Del sentido*, Gredos, Madrid.
- Hernandez, J. M. (2008): "Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik", *Bat, Soziolinguistika aldizkaria*, **69**, 27-42.
- Hobsbawm, E. eta Ranger, T. (2002): *La invención de la tradición*, Critica, Barcelona.
- Huizinga, J. ([1954]1972): *Homo ludens*, Alianza, Madrid.
- Jung, C.(1999): *Los arquetipos y lo inconsciente colectivo*, Trota, Madrid.
- Kristeva, J. (2001): *Semiótica*, Madrid, Fundamentos.
- Lekuona, J. M. (1982): *Ahozko euskal literatura*, Erein, Donostia.
- Lekuona, M.(1978): *Idazlan guztiak. Ahozko literatura, Kardaberaz bilduma 22*.
- Lotman, I. (1998): *La semiosfera. II. Semiotica de la cultura, del texto, de la conducta y del espacio*, Catedra, Madrid.
- , (1996): *La semiosfera*, Cátedra, Madrid.
- , (1993): *Escritos. Revista del Centro de Estudios del Lenguaje*, Puebla, Mexico, 47-60.
- Maffesoli, M. (1990): *El tiempo de las tribus*, Icaria, Barcelona.
- Maillard, C. (1992): *La creación por la metáfora*, Anthropos, Barcelona.
- , (1998): *La razón estética*, Alertes, Barcelona.
- Onaindia, S. (1964): *Gure bertsolariak*, Bilbo.
- Ortiz, A. [(1996)-2007] *Ama jainkosa. Euskal mitologiatik interpretatua*, Gaiak, Donostia.
- , (1982): *El inconsciente colectivo vasco*, Txertoa, Donostia.
- Peirce, C. (1988): *El hombre, un signo*, Critica, Barcelona.

- _____, (1988): *Escritos lógicos*, Alianza, Madrid.
- _____, (1974): *La ciencia de la semiótica*, Nueva vision, Argentina.
- _____, (2005): *Artikulu eta hitzaldien bilduma*, Gestingraf, Bilbo [euskaratzailea: Ibon Uribarri Zenekorta].
- Ricoeur, P. (2005): *Caminos del reconocimiento*, Trota, Madrid.
- _____, ([1975],1980): *La metáfora viva*, Cristiandad, Madrid.
- Rodriguez, F. (1988): *Bertsolaritza, formarik gabeko heziketa*, EHU.
- Sperber, D. (1978): *El simbolismo en general*, P. Cultural, Bartzelona.
- Touraine, A.(2009): *La mirada social. Un marco de pensamiento distinto para el siglo XXI*, Paidós, Bartzelona.
- Turner, V. (1988): *El proceso ritual*, Taurus, Madrid.
- _____, (1990): *La selva de los símbolos*, Siglo XXI, Madrid.
- Winnicott, D.(1979): *Realidad y juego*, Gedisa, Bartzelona.
- Zabala, L. (1999): *La precisión de la incertidumbre: postmodernidad, vida cotidiana, escritura*, Mexiko.
- Zavala, A. (1964): *Bosquejo de la historia del bertsolarismo*, Tolosa.
- Zubimendi, J. (1935): "Lehengo bertsolari eguna", *Yakintza III*, 141-154.
- _____, (1936): "Bigarren bertsolari eguna", *Yakintza IV*, 141-158.
- Zulaika, J. (1985): *Bertsolariaren joko eta jolasa*, Baroja, Donostia.
- _____, (2003): *Bertsolaritzaz bi saio*, Bertsolari liburuak, Andoain.

